

Donostia, 2020ko irailaren 18a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

AUZOAK MANTENTZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) hiriko auzoak garbi eta, oro har, kasu eginda edukitzeari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den uztailean, hiriko auzoetako espazio publikoak zaindu, mantendu eta garbitzeari buruzko interpelazio bat aurkeztu genuen Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak). Zehazki, ohartarazten genuen plaza eta parke batzuk narras samar zeudela, eta eskatu genuen aisialdirako eta astialdirako espazio publiko horiek egoki mantentzeko.

Utzikeria eta garbitasunik eza nabaria zen leku horietako bat Ipar Intxaurrendoko Bernart Etxepare plaza zen. Plaza horretan, urmael bat dago, eta ordurako baziren sei hilabete ur geldiz beteta zegoela. Interpelazioa erregistratu ondoren, batzordeen aurreko egunetan, Hiri Mantentze atalak urmaeleko ura kentzeko agindua eman zuen, baina ez zuen garbitu putzuaren hondoan metatutako lirdinga.

Behin baino gehiagotan gertatu izan zaigu hiri mantentzeari buruzko gaiak erregistratzea batzordeetarako, eta, harrigarriro, justu batzordeetan aztertu baino lehentxeago konpontzea arazoa. Halaxe gertatu zen Intxaurrendoko Zarategi pasealekuko etxeetako euri urak biltzeko saretarekin eta

Intxaurrendoko osasun zentrorako sarbideak mozten zituzten hesiak kentzearekin (bereziki larria zen gurpil aulkian zihoazenei harako sarbidea ematen zien arrapalan sartzea eragozten ziena).

Hiri Mantentze zerbitzuak justu batzordeen aurretik esku hartzeko duen presa horren oraintsuko adibide bat jartzearen, hil honetan garbitu dituzte Bidebietako Salvador Allende parkearen izena adierazten duen seinalea eta Txileko politikariaren omenezko plaka. Irailaren 4an erregistratu genuen parkeko elementu horiek garbitzeko interpelazioa, eta irailaren 11n, Allenderen heriotzaren urteurrena gogoratzeko toki horretan egin zen omenaldian, jadanik esku hartu zutela ikusi ahal izan zuten bertaratu zirenek.

Alabaina, esku-hartze horiek oposizioko taldeek ekimenen bat erregistratu ondoren egiten dira beti; izan ere, ikusi dugu hainbat kasutan bizilagun partikularrek salaketa eta kexaren bat jarri eta atal horrek ez entzun egin diela. Batzuetan, urtebete baino gehiago behar izaten dute arazo horiei erantzuteko, eta horrek, jakina, eragin negatiboa du herritarrengan.

Uste dugu plaza, parke eta lorategietan ez jarduteak eta, oro har, garbiketa faltak utzikeria sentsazioa eta ezinegona sortzen duela hiriko auzoetako bizilagunen artean; horrek, era berean, hiriko beste eremu batzuekiko kohesio falta dakar, eta erakunde publikoetatik eta haien kudeatzaileetatik nabarmen urruntzea. Eta, nahiz eta udal gobernuak ez duen uste hiriko auzoak inola ere desberdin tratatzen direnik, kontrakoa frogatzen duten ebidentziak aurkitzen ditugu.

Hori horrela, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzakoak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari garbitu eta behar bezala mantendu ditzala hiriko auzoetako plazak, parkeak, lorategiak eta gainerako espazio publikoak.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari egin dezala azterlan bat auzoetako bizilagunek bizi diren tokietako mantentzeaz eta garbiketaz duten pertzepzioari buruz, eta hiriko Ekialdeko Barrutia osatzen duten auzoetatik has dadila.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari har ditzala hartu beharreko neurri zuzentzaileak, proposatutako azterlanean hiriko auzoetako bizilagunengandik atera diren ondorioak oinarritzat hartuta.

Haizea Garay Gallastegi
Elkarrekin Donostia taldeko zinegotzia